# Elkarteen Udal Erregistroa arautuko duen Erregelamendua

-----------

# Reglamento Regulador del Registro Municipal de Asociaciones Sin Ánimo de Lucro



C.I.F. P-200720O-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449600 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA (Gipuzkoa)

## HERRIAREN ONURAKOAK ETA DIRUA IRABAZTEA XEDE EZ DUTEN ELKARTEEN ERREGISTROA

Errenteriako Udalak diruz laguntzen ditu udalerri honetan jardun eta dirua irabazteko xederik ez duten hainbat elkarteek burutzen dituzten ekintzak.

Elkarte hauekin izandako harremanak direla eta, elkarte hauek herriaren onurakoak direla uste dugu, nahiz eta ez diren argi eta garbi horrelakotzat jotzen.

Horregatik, eta herriaren onurako herrian izan litezkeen elkarteen adierazgarri eta informazio emaile moduko tresna bat izatearren, herri onurakoak eta dirua irabaztea xede ez duten elkarteen erregistroa eratuko dugu, ondoren adierazten diren arauen arabera jardungo duena.

**LEHENENGO:** Udalaren Onurakoak eta Dirua Irabaztea Xede ez duten Elkarteen Erregistroan ondorengo datuak jasoko dira:

- Elkartearen izena
- Elkartearen Z.I.K.
- Elkartearen helbidea
- Eginkizun nagusiak
- Jardun-eremua
- Elkartearen legezko ordezkaria
- J.E.Z.ren zergaren epigrafeak
- Erregistroan inskripzioa eginiko eguna.

## REGISTRO DE ASOCIACIONES SIN ÁNIMO DE LUCRO DE INTERÉS MUNICIPAL

Considerando que este Ayuntamiento de Errenteria viene subvencionando las diferentes actividades que Asociaciones de ámbito local y sin ánimo de lucro llevan a cabo en este municipio.

Teniendo en cuenta que las relaciones mantenidas con estas Asociaciones las hacen acreedoras de ser consideradas como de interés municipal sin existir un reconocimiento fehaciente de las mismas.

Por ello, y a fin de disponer de un instrumento declarativo e informativo de las Asociaciones de Interés Municipal que pueden existir en la localidad, se crea un Registro de Asociaciones Sin Ánimo de Lucro de Interés Municipal, cuyo funcionamiento se regula conforme a las siguientes normas.

**PRIMERO:** En el Registro de Asociaciones Sin Ánimo de Lucro de Interés Municipal se inscribirán los siguientes datos:

- Nombre de la Asociación
- N.I.F. de la Asociación
- Dirección de la Asociación
- Actividades principales
- Ámbito de actuación
- Representante legal de la Asociación
- Epígrafes del Impuesto del I.A.E.
- Fecha de inscripción en el



C.I.F. P-200720O-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449600 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA (Gipuzkoa)

Registro

- Erregistroko inskripzio-zenbakia.

- Número de inscripción en el Registro

**BIGARREN:** Herriaren Onurakoak eta Dirua Irabaztea Xede ez duten Elkarteen Erregistroan inskribatzea eskatu ahal izango dute Errenterian lankidetza-lanak egin eta Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Ekonomia eta Gizarte Segurantza Saileko Elkarteen Erregistroan behar bezala inskribatuta dauden elkarteek, beti ere hauen zuzeneko edo zeharkako eginkizunek ez badute zerikusirik enpresaritza, lan-profesional edo artistikoekin.

**SEGUNDO:** Podrán solicitar inscripción en el Registro de Asociaciones Sin Ánimo de Lucro de Interés Municipal, aquellas Asociaciones debidamente inscritas en el Registro de Asociaciones del Departamento de Justicia, Economía y Seguridad Social del Gobierno Vasco que presten actividades de colaboración en el municipio de Errenteria, y cuyo objeto directa o indirectamente no esté vinculado con el ejercicio de actividades empresariales, profesionales o artísticas.

**HIRUGARREN:** Inskripzioa egin nahi duten elkarteek Udaleko Erregistro Nagusian eskaera egin beharko dute eta horrekin batera ondorengo agiriak ekarri:

- Elkartearen Estatutuak
- Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Ekonomia eta Gizarte Segurantza Saileko Elkarteen Erregistroan izena emanak daudela adieraziz eguneratutako agiria
- Zuzendaritza karguak dituzten lagunen izenak.
- Elkartearen helbidea
- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren zein epigrafeetan alta eman izanaren agiria.
- Urteko aurrekontua eta ekintzen egitaraua aurkeztu ahal izango dute.

**TERCERO:** Las Asociaciones interesadas en su inscripción deberán presentar solicitud para la misma en el Registro General del Ayuntamiento acompañando la siguiente documentación:

- Estatutos de la Asociación
- Justificante actualizado de inscripción el en Registro de Asociaciones del Departamento de Justicia, Economía y Seguridad Social del Gobierno Vasco
- Nombre de las personas que ocupan los cargos directivos
- Domicilio Social
- Justificante de Alta en el epígrafe correspondiente del Impuesto de Actividades Económicas.
- Podrán presentar programa de actividades y presupuesto del año en curso.



C.I.F. P-200720O-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449600 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA (Gipuzkoa)

Urtero urteko batzarreko deia eta aktaren ziurtagiria aurkeztu beharko dute. Bertan, gutxienez bertaratutakoen kopurua kasu bakoitzerako hautatutako zuzendaritza karguak eta emandako aldaketak jasoko direlarik.

Hiru urtez jarraian ez balitz aipatu dokumentazioa aurkeztuko, interesatuari hitz egiteko aukera eman ostean, elkarte horri Erregistroan baja emango litzaioke.

**LAUGARREN:** Bidezko udal zerbitzuek aldeko edo aurkako proposamena egingo diote udal Gobernu Batzordeari, honek inskripzioa egin edo ez erabakitzeko.

**BOSGARREN:** Herriaren Onurakoak eta Dirua Irabaztea Xede ez duten Elkarteen Erregistroan inskribatzeak elkartea udalaren onurakoa dela aitortzea suposatuko du.

**SEIGARREN:** Erregistroa Idazkaritza Nagusiaren esku egongo da eta bera arduratuko da inskripzio eskaeretaz.

**ZAZPIGARREN:** Udalak Erregistroko inskripzioa ezabatu ahal izango du baldin eta elkartearen jardunak ez direla udalaren lankidetzakoak jotzen badira. Ezabaketa arrazoitu egingo da, eta halaber entzute-tramitea bermatuko duen espedientea ireki.

**ZORTZIGARREN:** Inskripzioko punturen batean aldaketaren bat emanez gero, izena emandako elkartea arduratuko

Anualmente deberán presentar convocatoria de su asamblea anual y certificado del acta, donde como mínimo deberá constar el número de asistentes y cargos directivos elegidos en cada ocasión con los cambios correspondientes.

En el caso de que durante 3 años consecutivos no fuera presentada la citada documentación, se procederá previa audiencia al interesado, a dar de baja a la citada Asociación en este Registro”.

**CUARTO:** Los servicios municipales correspondientes efectuarán propuesta en sentido favorable o desfavorable a la inscripción a la Comisión de Gobierno Municipal.

**QUINTO:** La inscripción en el Registro de Asociaciones Sin Ánimo de Lucro de Interés Municipal implica la declaración de Asociación de Interés Municipal.

**SEXTO:** El Registro estará a cargo de la Secretaría General debiéndose responsabilizar de las solicitudes de inscripción.

**SÉPTIMO:** El Ayuntamiento podrá proceder a la anulación de la inscripción en el Registro por actuaciones que se consideren contrarias a la colaboración con el municipio. La anulación deberá ser motivada, exigiendo la apertura de expediente que garantice el trámite de audiencia.

**OCTAVO:** La Asociación inscrita se responsabilizará de notificar al Registro cualquier modificación



C.I.F. P-200720O-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449600 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA (Gipuzkoa)

da Erregistroari jakinarazteaz.

**BEDERATZIGARREN:** Interesa duten elkarteek lehen adierazitako moduan inskribatu beharko dute 6/1997 Foru Arauan, urriaren 28koa (apirilaren 20ko 1/1993 Foru Dekretu Arautzailea aldatzen duena) jasotako zerga-onurez baliatzeko moduan, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren Berreginiko Testua onartzen duena eta agindu litezkeen gainontzekoak, beti ere araudi horretan eskatzen diren baldintzak betez gero.

Era berean, izena emandako elkarteak Udalak erabaki ditzakeen zerga ez besteko onura zenbaitez baliatu ahal izango dira.

**HAMARGARREN:** Elkarteek edozein unetan eskatu ahal izango dute Udalaren Onurakoak eta Dirua Irabaztea Xede ez duten Elkarteen Erregistroan izena ematea.

experimentada en los elementos objetivos de la inscripción.

**NOVENO:** Las Asociaciones interesadas deberán inscribirse en la forma dispuesta anteriormente para gozar de los beneficios fiscales recogidos en la Norma Foral 6/1997, de 28 de octubre, por la que se modifica el Decreto foral Normativo 1/1993, de 20 de abril, por el que se aprueba el Texto Refundido del Impuesto sobre Actividades Económias y los demás que puedan dictarse, siempre y cuando se cumplan en cada caso los requisitos exigidos en dicha normativa.

Asimismo las Asociaciones inscritas gozarán de otros beneficios de contenido no tributario que pudiera disponer el Ayuntamiento.

**DÉCIMO:** Las Asociaciones interesadas podrán solicitar, en cualquier momento la inscripción en el Registro de Asociaciones Sin Ánimo de Lucro de Interés Municipal.



C.I.F. P-200720O-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449600 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA (Gipuzkoa)

**IZENA/NOMBRE**...................................................

**NAN/DNI**...................

**HELBIDEA/DOMICILIO**.............................................

**ORDEZKATZEN DUEN ELKARTEA/ Asociación a la que representa** .........
.................................................................

**ELKARTEAREN HELBIDEA/Domicilio social** .............................
..........…......................**N.I.F**.......................

**ELKARTEAN DUEN KARGUA/ Cargo que tiene en la Asociación** ...........
.................................................................

HAUXE ADIERAZTEN DUT:

*Errenteriako Udalak, Herriaren Onurakoak eta Dirua Irabaztea Xede ez duten Elkarteen Erregistroa eratu duela jakin dudanez; nik ordezkatzen dudan elkarteak, **HERRIAREN ONURAKO ELKARTE** izateko bete behar dituen baldintza guztiak betetzen dituela uste dudanez,*

ESKATZEN DUT ..................... *.........................elkartea **HERRIAREN ONURAKOAK ETA DIRUA IRABAZTEA XEDE EZ DUTEN ELKARTEEN ERREGISTROAn** inskribatzea, horretarako ondorengo agiriak ekarri ditudalarik:*

- *Eusko Jaurlaritzako Justizia, Ekonomia eta Gizarte Segurantza Sailak duen Elkarteen Erregistroan duten inskribapen-agiriaren frogagiria eguneratua.*
- *Elkartearen Estatutuak*
- *Zuzendaritzako kargudunen zerrenda.*

MANIFIESTA:

*Que enterado/a de la creación por parte del Ayuntamiento de Errenteria del Registro de Asociaciones Sin Ánimo de Lucro de Interés Municipal y considerando reunir las condiciones para ser declarada la que represento **ASOCIACIÓN DE INTERÉS MUNICIPAL**.*

SOLICITO: *Que la Asociación ...................... .................quede inscrita en el **REGISTRO DE ASOCIACIONES SIN ÁNIMO DE LUCRO DE INTERÉS MUNICIPAL**, adjuntando al efecto la siguiente documentación:*

- *Certificado actualizado de inscripción de la Asociación en el Registro de Asociaciones del Departamento de Justicia, Economía y Seguridad Social del Gobierno Vasco.*
- *Estatutos de la Asociación.*
- *Relación de las personas que ocupan cargos directivos.*

Errenteria, 200..(e)ko ren a / Errenteria, de de 200..

Stua./ Firma



C.I.F. P-200720O-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449600 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA (Gipuzkoa)

## ERANSKINA - ANEXO

Herriaren onurakoak eta dirua irabaztea xede ez duten Elkarteen Erregistroan jasoko diren datuak hauexek izango dira:

Los datos que figurarán en el Registro de Asociaciones Sin Animo de Lucro de Interés Municipal serán:

- **Elkartearen izena / Nombre de la Asociación**
- **Elkartearen IFK / NIF de la Asociación**
- **Elkartearen helbidea / Dirección de la Asociación**
- **Jarduera nagusiak / Actividades principales**
- **Jarduera eremua / Ámbito de actuación**
- **Elkarteburua edo ordezkaria / Presidente /Representante de la Asociación**
- **Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren epigrafea / Epígrafe del Impuesto de Actividades Económicas**
- **Erregistroan izena emandako eguna / Fecha de inscripción en el Registro**
- **Udal Erregistroan inskripzio-zk.a / Nº de inscripción en el Registro Municipal**



C.I.F. P-200720O-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449600 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA (Gipuzkoa)

Visto el Reglamento del Registro De Asociaciones Sin Ánimo De Lucro De Interés Municipal, remítase el mismo a la Comisión de Hacienda para su análisis y dictamen correspondiente.

Errenteria, a 13 de junio de 2001

**EL ALCALDE**



C.I.F. P-200720O-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449600 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA (Gipuzkoa)